

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Udalaren ondasun higiezin, etxebizitza eta orubearen errentamendua

Udalbatzaren 2019ko uztailaren 11ko erabaki batekin bat etorritik, iragarki honen bidez lehiaketa iragartzen da udal honen "Mediku etxe zaharra" izeneko higiezin eta orubea (katastro erreferentzia: 1 poligonoa, 915 lurzatia) errentan emateko. Etxe horrek, udal inbentarioan, ondare ondasun kalifikatuta dago eta Urizaharreko Urizaharra etorbideko 31n dago. Ondasun horri etxebizitza erabilera eman beharko zaio. Hona hemen lehiaketaren xehetasunak:

1. Erakunde esleitzaila: Urizaharreko Udala.
 - a) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: udal idazkaritza.
 - b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:
 - 1) Bulegoa: udaletxea.
 - 2) Helbidea: Frai Jacinto Martinez plaza, 2.
 - 3) Herria eta posta kodea: Urizaharra. 01212.
 - 4) Telefonoa: 945367004
 - 5) Telefaxa: 945367073
 - 6) Helbide elektronikoa: apenacerrada@ayto.araba.eus.
 - 7) Kontratzailearen profilaren interneteko helbidea. www.penacerrada-urizaharra.com edo www.contratación.euskadi.eus.
 - c) Espedientearen zenbakia: 3/2019
2. Kontratuaren xedea: udal etxebizitza baten errentamendua.
 - a) Tokia: Urizaharra.
 - b) Helbidea: Urizaharra etorbidea, 31.
 - c) Herria eta posta kodea: Urizaharra. 01212.
 - d) Errentamendu epea: zazpi urte.
3. Izapidetzea eta prozedura:
 - a) Izapidetzea: ohikoa.
 - b) Prozedura: lehiaketa publikoa.
 - c) Esleipen irizpideak: ekonomia eskaintzarik onena, gehien eskaintzen duena, zenbait esleipen irizpiderekin:
 - 1) Gehien eskaintzen duenari: 60 puntu.
 - 2) Errentan hartzen den etxebizitzan biziko den kide gehien duen bizikidetzaren unitateari: 20 puntu.
 - 3) Ohiko etxebizitza izango duenari: 10 puntu.
 - 4) Urizaharrean erroldatuta dagoela egiaztatzen duenari: 10 puntu.

4. Errentamenduaren zenbatekoa:

Errentamenduaren zenbatekoa: 575,31 euro hilean.

5. Fidantzak:

a) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: hiru hilabeteko alokairua.

6. Eskaintzak aurkeztea: Urizaharreko Udalaren bulegoetan -Fray Jacinto Martinez kalea, 2. zenbakia, Urizaharra- 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

7. Agiriak aztertzea: Urizaharreko udal bulegoetan, aurreko atalean zehaztutako ordutegian, eta kontratatzailearen profilean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera: www.penacerrada-urizaharra.com edo www.contratación.euskadi.eus.

8. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintza eredia: onetsitako administrazio klausulen agiriari adierazitakoak.

Deialdiari buruzko argibideak edo agiriak lortzeko kontratatzailearen profila: www.penacerrada-urizaharra.com edo www.contratación.euskadi.eus.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Urizaharra, 2019ko uztailaren 11

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO